

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiiek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun.

Bezero-talde bat edo hainbat egon daitezke. Beren ezaugarri komunetan oinarrituta taldekatu behar ditugu, beren beharrak hobeto asetzeko.

Gure egitasmoa 16 urte baino gehiago duten pertsonentzat bideratuta dago. Uste dugulako 16 urte edo 16 urte baino gehiago duten pertsonak arduratsuak direla, birziklatzeagatik lortuko duten saria(deskontua edozein gauzatarako, hala nola, arropa, elikagaiak, garraioan etab...) ondo erabiliko eta ondo baliatuko dutela uste dugu. Gainera, esan dugunez, oso garrantzitsua da hurrengo belaunaldiak balioztatzea gure lurra eta gure ingurunea. Lehenago esan dugun moduan, pentsatuta daukagu gure proiektua Gasteizen zabaltzea ikusteko nola familiek barneratzen duten gure egitasmoa. Gure ustez, Gasteizko familiek konpromesua hartuko dute gure proiektuarekin hiri hau ezaguna delako haien ingurunea zaintzeagatik, gainera, gure jatorrizko hiria delako eta gustatuko litzaiguke gure jendearekin ideia hau partekatzea. Geroago, emaitzak onak badira, Euskal Herrian zabalduko genuke gure ideia eta horrela jarraitzen badugu Europa mailara banatuko genuke. Gure helburua da gure egitasmoa pertsona gehienetara zabaltzea, gure mundua eta gure gizartea hobetzeko.

Ulertzen dugu gazte eta heldu batzuei bost axola zaiela aldaketa klimatikoa, pentsatzen dutelako gezur bat dela edo ez dela hain garrantzitsua, baina gure proiektuarekin saiatzen ari gara jende multzo hori kontzientziatzen, birziklatu ahal dutela modu erraz batean eta haien laguntzarekin aldaketa klimatikoari aurre egin ahal diogula. Baina, ez dugu denbora asko galduko jende talde horri pentsamendua aldatzen, aldaketa klimatikoa hemen alboan daukagulako eta ezin dugu denbora galdu. Horregatik, gure bezeroak izango dira gure proiektuarekin eta haren helburuekin bat egiten duten pertsonak.

Gure merkatua, merkatu masiboa izango litzateke, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handi bat delako. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daudelako, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituzten pertsonak direlako. Gure kasuan,

pertsona multzo handi bat kontzientziazatuta dagoelako aldaketa klimatikoarekin eta gure gizartean aldaketa bat egin nahi dutelako gai honi buruz. Gainera, 16 urte baino gehiagoko pertsonak parte hartzen dute gure merkatua askoz gehiago zabaltzen da.

Laburbilduz, gure bezeroak 16 urte baino gehiago duten pertsonak izango dira, gure kausarekin eta ingurumenarekin bat egiten duten pertsonak izango dira, baina ez ditugu gure ateak ixten eta jende berria parte hartzera gonbidatzen ditugu.